



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Langabezian dauden 8 pertsona kontratatzeke baldintzak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak martxoaren 7an emandako 251/2018 Ebazpenaren arabera. Ebazpen horren bidez, Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia onetsi zen, interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabetuak kontratatzeke (Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 57. zenbakian argitaratu zen, 2018ko martxoaren 21ean).

Deialdi hau 2022. urterako baimendua izan da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak otsailaren 4an emandako 98E/2022 Ebazpenaren bidez. Horren bidez, "Nafarroako Toki Erakundeak, langabetuak kontratatzeagatik, interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko" diru-laguntzarako deialdiaren gastua baimendu da, eta haren oinarriak aldatu dira (Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 43. zenbakian 2022. urteko martxoaren 1ean argitaratua).

Altsasuko Udalak ondoko lanpostuak betetzeko langileak kontratatuko ditu:

**- Lorezaintzako ofiziala:**

Lanpostu kopurua: 4

Kategoria: 2. maila - D maila

6 hilabeteko aldi baterako kontratua lanaldi osoan.

Alorra: Udal Obra eta Zerbitzuen Brigada.

Baldintza orokorrez gain, beharrezkoa da OHOk titulua edo baliokidea izatea.

Hiru lanpostu horietako baterako, nahitaezkoa da B gidabaimena izatea.

**- Peoia:**

Lanpostu kopurua: 4

Kategoria: E maila

6 hilabeteko aldi baterako kontratua lanaldi osoan.

Alorra: Udal Obra eta Zerbitzuen Brigada.

Baldintza orokorrez gain, beharrezkoa da Ikasketa Ziurtagiria edo baliokidea izatea, baita Errenta Bermatuaren jasotzailea izatea ere.

**BALDINTZA OROKORRAK:**

Udalak kontratatuko dituen pertsonen, kontratatzeke unean, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak martxoaren 7an emandako 251/2018 eta otsailaren 4ko 98E/2022 Ebazpenetan ezarritako baldintzak.
- Errenta bermatua (peoia) jasotzen duten pertsonak kontratatuz gero, prestazio horren onuradun izan beharko dute Enplegu Agentziak eskaintza izapidetzen duen egunean.
- Ez dira kontratatuko, 3.1.a) oinarrian aurreikusitako kolektiboen salbuespenarekin, aurreko urtean hiru hilabeteko edo gehiagoko epean toki entitate eskatzaile honek deialdi honen antzeko baten babesean kontratatuak izan diren pertsonak, baldin eta horien kontratazioa obrak egiteko edo bestelako zerbitzuak emateko egiten bada.
- Altsasuko Enplegu Agentziak kudeatzen dituen eskaintzetan agertzen diren lanpostu bakoitzaren baldintza bereziak betetzea (lanbide-profila, titulazio akademikoa eta/edo beste baldintza batzuk).

### IZENA EMATEA ETA HAUTAPEN PROZESUA:

Deialdian adierazten denez, Altsasuko Udalak Altsasuko Enplegu Agentziari lanpostu bakoitzerako behar diren langabetuak eskatuko dizkio. Eskaera hori lan eskaintzen bidez egingen da, aipatutako Enplegu Agentziara igorri beharrekoak.

**Izena emateko eta hautagaiak 2022ko apirilaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira Altsasuko Enplegu Agentzian.**

Enplegu Agentziak, eskatutako profilarekin bat etorritz, eta betiere diru-laguntza eskatzeko ereduan adierazitakoarekin bat etorritz, zundaketa bat egingo du enplegurako prest egon daitezkeen eta eskaintako lanposturako egokiak diren hautagaiak aukeratzeko, hau da, lanpostuaren edukiarekin eta maila profesionalarekin bat datorren profil profesionala duten pertsonak aukeratzeko.

Zundaketa ikusita, Agentziak aurrehautaketa egingen du, entitate onuradunak eskatzen dion lanpostu bakoitzeko zenbat izangai hautatuko dituen. Zerrendan hautagaiak identifikatuko dira eta zein taldetakoak diren aipatuko da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak martxoaren 7an emandako 251/2018 Ebazpenaren 3.1) oinarriari jarraiki.

Enplegu Agentziak lanpostuaren udalerriri dagokion bilaketa-eremua erabiliko du zundaketa egiteko, eta, proiektua egiteko behar adina hautagai ez badu, beste udalerrri batzuetara zabalduko du, hurbilen daudenei lehentasuna emanez, proiektuan aurreikusitako hautagaien kopurua lortu arte. Bilaketa beste udalerrri batzuetara zabaldu eta gero, proiektuak eskatzen duen hautagai kopurua lortzeko lanposturako behar beste pertsona ez badago, eskaintako lanpostura gehien hurbiltzen den profil profesionala duten beste pertsona batzuk hautatuko dira, lanpostuaren udalerritik hasita. Eskaintako lanpostuaren antzeko lanbide-profilak zehazteko,



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

zundaketa bat egingo da, Lehen Mailako Taldearen mailako Okupazio Bereizien Sailkapen Nazionalaren (4 digitu) egungo kode-taula erabiliz.

Hautagaiak aurrez hautatu ondoren, Enplegu Agentziak baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerrendak bidaliko dizkio Altsasuko Udalari. Kontratazio-ordena zehazteko, Altsasuko Udalak pertsona horiei hautaketa-proba teoriko-praktikoak egingo dizkie. Proba horiek epaimahaiak zehaztuko ditu eta lanpostuarekin zerikusia izango dute. Horrez gain, euskararen jakite-maila baloratuko du (gehienez ere guztizko puntuazioaren %5).Garaiz jakinaraziko da.

### KONTRATAZIORAKO BAREMOA:

- **Lanpostu bat dagokion probara eta hau gainditzen duen genero-indarkeriaren biktima den emakume batentzat erreserbatuta dago** (emakumeenganako indarkeriaren aurka jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoaren arabera). Talde horretako emakume bat baino gehiago aurkezten bada lanpostu bererako, probetan puntuaziorik altuena lortu duena kontratatuko da, lanpostua gordez. Kolektibo horretako emakume bat baino gehiago aurkezten bada lanpostu desberdinetara, Altsasun emakumeen langabezia handiena duen lanbide taldeari aplikatuko zaio erreserba.
- **Lanpostu bat 51 urtetik gorako pertsona batentzat gordeko da, dagokion probara aurkeztu eta gainditzen badu.** Talde horretako pertsona bat baino gehiago aurkezten bada lanpostu bererako, probetan puntuaziorik altuena lortu duena kontratatuko da. Kolektibo horretako pertsona bat baino gehiago aurkezten bada lanpostu desberdinetara, Altsasun langabezia handiena duen lanbide taldeari aplikatuko zaio erreserba.
- **Peoi edo peoiaren lanbide profilean, gutxienez 2 lanpostu izanen dira sarrera proba gainditu duten emakumeenak,** eta kontuan hartuko da, gainera, puntuaziorik altuena.
- Bakarrik gizonak aurkeztu diren edo gizonak bakarrik gainditu dituzten lanbide profiletan, baremoa puntuazioaren arabera egingen da.

### EPAIMAHAIA:

- Lehendakaria: Manuel Bergera Ijurco jauna, Antolaketa eta Giza Baliabideen Batzordeko burua. Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.
- 1. mahaikidea: Felix Benjumea Motino, Altsasuko Udaleko obra eta zerbitzuen arduraduna. Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ García Ximenez 36 - 31800

- 2. mahaikidea: Isaac Valencia Alzueta jauna. Udal idazkaria. Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.
- 3. mahaikidea: Jon Goikoetxea Viana jauna, Altsasuko Udaleko ordezkari sindikala. Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.
- 4. mahaikidea: Angel María Zarautz Arruti jauna, Altsasuko Udalaren Zerbitzu Anitzetako eta Kale Garbiketako langilea. Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.

**Datuak tratatzeko arduraduna**

Nortasuna: Altsasuko Udala  
Posta helbidea: García Ximenez kalea 36, 31800 Altsasua (Nafarroa)  
Telefonoa: 948 56 21 61  
Posta elektronikoa: [alsasu@alsasua.net](mailto:alsasu@alsasua.net)  
Datuak Babesteko Ordezkarria: [dpd@alsasua.net](mailto:dpd@alsasua.net)

**Helburua:** enplegu-deialdiak kudeatzea botere publikoen jardunean.

**Oinarri juridikoa:** 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa, bai eta interesdunaren adostasuna ere.

**Datuak gordetzeko denbora:** datuak adierazitako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta Udalak datuak tratatzearen ondoriozko erantzukizunak izan ditzakeen bitartean biltegiatuko dira. Halaber, Artxibo eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.

**Datuen hartzaileak:** datuak epaile eta auzitegiei laga dakizkieke, indarrean dagoen legeria betez, eta udalaren webgunean eta iragarki-oholetan argitaratuko dira, deialdian adierazitakoaren arabera.

**Eskubideak:** interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, zehaztugabeak badira, eta ezeztatzeko, lehenengo atalean adierazitako helbidera joz.

Era berean, interesdunek erreklamazioa aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, Jorge Juan kalea 6, 28001 helbidera (Madril) edo [www.agpd.es](http://www.agpd.es) helbide elektronikoan.

*Nafarroako Enplegu Zerbitzuak/Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuak  
kofinantzatutako programa*

